



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**ERABAKIA, 2025eko MARTXOAREN 27koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE-
IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ
ZUZENTZEN DEN 2025eko MARTXOAREN 25eko ERABAKIA,
IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN PLAZAK ESLEITZEKO**

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- 2025eko martxoaren 25eko erabakiaren bidez, UPV/EHU irakasle laguntzaile doktoreen plaza betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen, eta 141 zenbakiarekin (barneko kodea: PADCL2-D00227-19) Soziologia jakintza arloko plaza bat zehaztu zen.

Bigarrena. – PADCL2-D00337-19 plaza oker deitu da, eta 2025eko martxoaren 25eko deialditik kendu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Irakasle-ikertzaileen errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakia, errektorearen eta bere gobernu taldeko kideen ordezkapenei buruzkoa, dela bide

Bigarrena.- 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, honako hau dio 109.2 artikuluan: ***"Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak"***.

Horregatik guztiagatik,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- PADCL2-D00337-19 plaza kentzea 2025eko martxoaren 25eko deialditik.

Bigarrena.- Jakinaraz bekio erabaki hau dagokion sailari eta argitara bedi unibertsitatearen webgunean (Irakasleak- Deialdi bideratuak). Har beza kontuan Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuan hala dagokion atalak.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsua jar dakioke UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita.

Leioan, 2025eko martxoaren 27an

Sin.: Efren Areskurrinaga Mirandona
IRAKASLE-IKERTZAILE ERREKTOREORDEA